


P A M
M U S I K A
T A L D E A

"Gure ustez lan duina egin dugu"



IKER SAENZ DE ZAITEGI, KARLOS BALSEIRO, MARCOS GIMENO ETA JUANMI BRAVO DIRA PAM TALDEAREN ARIMA. 1985EAN EMAN ZUTEN EUREN LEHENENGO KONTZERTUA. EUREN AZKEN PROIEKTUAREN BIGARREN LANA, THE KILLIN' WHASHIN' MACHINE AURKEZTU ZUTEN ABENDUAREN 12AN ERMUKO LEX TABERNAN.

- Zer dela eta PAM?

Izenaren oinarria, "Puto Amoak Matematiketan" da. Beti ibili gara, matematikak gora eta behera adarra jotzen eta parranda gau batetik dator izena.

-Musikari askok urteak pasatu eta utzi egiten dute. Zuek ordea hor jarraitzen duzue, zer dela eta? Boka-zioa ala afizioa da zuena?

Erlijioa da jada. Praktikan-teak gara. Txantxak alde bate-ra utzita, hemen jarraitzen du-gu, honek betetzen gaituelako. 1985ean izan zen gure lehenengo kontzertua Julio Ka-getarekin Elgoibarko Institu-tuan. Beti egon gara elkarre-kin musikaren inguruan eta talde bat desegin ahal, beste bat sortzen zen modu natura-lean. Horrela, Julio Kageta, gero Dantzut eta orain PAM.

-Pasa den asteen Lex taber-nan egin zenuten zuen bigar-ren diskoaren aurkezpena, zer moduz?

Bigarren disko hau Ermuan aurkeztu nahi genuen eta leku aproposena, baldintza egokie-nak betetzen zituena Lex ta-berna zen. Ordu eta laurdene-ko emanaldia izan zen eta jen-de asko izan zen.

-Lan berri honetako kantak euskaraz egin dituzue?

Bai, 8 abesti dira. 7 gureak eta bertsio bat. Beti egin di-tugu euskaraz, horrela ateraz-tzen zaigu eta horrela jarrai-tzeko asmoa dugu, naturalta-sun osoz.

- Zuen bi diskoak zuek ekoiz-tu dituzue?

Udako opor osterako pres-tatu genuen dena irailean grabatzeko. Gure lokalean grabatu genuen, pentsatu be-zala, bost egunetan. Hainbat urte itxaron behar izan dugu guk gure lana ekoiztu ahal izateko. Agian estudio bate-an grabatutako lanaren kali-tate berarekin ez dela gera-tu? Onartzen dugu. Hala ere, guk interpretazioari ematen diogu garrantzi gehiago. Ge-ro, Karlosek abestiak nahas-tu zituen.

-Hurrengo pausua, kopiak egin eta banatzea.

Bai eta hor ere aukera ez-berdinak daude. Azkenean, Gaztelupeko Hotsak-ek la-gundu gaitu editatzen eta bai-ta banatzen ere.


- Musika estilo propioa du-zuela esango zenukete?

Punk-rock baten oinarritu-ta, hasieran Julio Kagetarekin egiten genuena berriz hartu dugu. Abesti errazak, egitura errazekin eta distortzioarekin. Uste dugu lan duina egin du-gula. Hala ere, Karlosek egi-ten duen kritika, zera da, soi-nu aldetik daukagun tresne-riari etekin gehiago ateratzea espero zuela.

-Zeintzuk dira lan berriare-kin dituzuen erronkak?

Ea gauzak errazten zaizki-gun kontzertuak lortzeko. Uda baino lehen, 6-10 kontzertu egitea da gure helburua.

Alazne Aiestaran

 **BAR
GERALEKU**

Bost'erdietatik zabalik.

San Inazio, 5. ☎ 17 00 32

ARRIETA CORDEVI

Elektrotresnak, telebistak,
bideoak, musika,
aparatoak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario Kalea, 5 ERMUA

 **OKINDEGIA
Ignacio Peña**

Okindegiko ☎ : 17 01 69

Etxeko ☎ : 17 14 55

Goienkalea, 12 - behea

ILEAPAINDEGIA

Iraskun

Goienkale, 9 (Plaza San Martín)
48260 Ermua Bizkaia
Tel. 943.17 66 90

ILEAPAINDEGIA